

## I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

### 1.1. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1.1.3. Foru Aginduak

**176/2007 FORU AGINDUA, urriaren 29koa, Hezkuntza Kontseilariak emana, Espainiako Konstituzioa argitaratu (1978ko abenduaren 29an) baino lehen euskara irakasten aritu izana frogatzeko irizpideak onesten dituen, aldi hura Gizarte Segurantzaren kotizatutzat har dadin.**

2007ko Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 42/2006 Legeak, berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarrian, ezartzen du Gizarte Segurantzaren kotizatutzat hartuko direla euskara irakasten emandako aldiak, irakaskuntza klandestinitatean egin eta horretan aritutakoak Gizarte Segurantzaren Sistemari sartu ez zirenean.

Lege horren helburua da Gizarte Segurantzaren prestazioetarako eskubidea aitortzea ukitutako pertsonen, edo, behar denean, jasotzen ari ziren prestazioen zenbatekoa handitzea. Horretarako onetsi zen ekainaren 15eko 788/2007 Errege Dekretua, euskarazko irakaskuntzaren emandako aldiak Gizarte Segurantzaren kotizatutzat jotzeari buruzkoa. Hartan zehaztu ziren aintzat hartuko ziren aldiak, eta horiek frogatzeko modua.

Dekretuak ezartzen duenez, interesdunek eskabidea aurkeztu beharko dute lan jardueraren aldiak aitortzeko. Horretarako beharrezkoa izanen da irakaskuntza jardueran aritu izanaren eta gauzatu zen aldien ziurtagiri bat aurkeztea, Euskal Autonomia Erkidegoko edo Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntzaren arloko organo eskudunak emana.

Beraz, bidezkoa da ziurtagiri hori emateko prozedura eta irizpideak zehaztea. Betiere, hala eskatu beharko dute Espainiako Konstituzioa argitaratu (1978. urteko abenduaren 29an) baino lehen Nafarroako Foru Komunitatean euskara irakasten aritu zirenek.

Horrenbestez, oinarritzat hartuz segurtasun juridiko, informazio eta gardentasunaren printzipioak, eta Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak esleitutako ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Espainiako Konstituzioa argitaratu baino lehen euskara irakasten aritu izana frogatzeko prozedura onesten da, aldi hura Gizarte Segurantzaren kotizatutzat har dadin. Arau hauen arabera garatuko da prozedura:

#### ARAUAK

Lehenbizikoa.–Xedea eta aplikazio eremua.

Foru agindu honen helburua da Espainiako Konstituzioa argitaratu (1978ko abenduaren 29an) baino lehen euskara irakasten aritu izana frogatzeko irizpideak onestea, aldi hura Gizarte Segurantzaren kotizatutzat har dadin, Nafarroako Foru Komunitatean lanbidez euskara irakasten aritu zirenentzat, klandestinitatean aritzeagatik aukerarik izan gabe Gizarte Segurantzaren inongo kotizazio araubidetan sartzeko.

Bigarren.–Euskara irakasten aritu izana aitortzeko eta frogatzeko baldintzak.

Aipatutako jarduera aitortu eta frogatzeko eskatzaileek agiriz frogatu beharko dute euskara irakasten aritu direla 1978. urteko abenduaren 29a baino lehen. Hartarako Zuzenbidean onartutako edozein bide baliatuko dute, eta nahikotzat hartuko da xedapen honetako bosgarren arauan ezarritako edozein.

Hirugarrena.–Eskumena.

Hezkuntza Departamentuko idazkari tekniko nagusiari dagokio ziurtagiriak emateko eskumena. Idazkaritza Tekniko Nagusiak arautzen dituen otsailaren 21eko 29/2005 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat. Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Nagusi Teknikoaren menpeko Administrazio Publikoko teknikariek (Arlo juridikoa) eginen dute tramitazioa eta instrukzioa.

Laugarrena.–Eskaerak eta dokumentazioa.

1.–Ziurtagiria jasotzeko eskabideak Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari zuzenduko zaizkio, eta Hezkuntzako Erregistro Bulegoan aurkeztuko dira, ahal bada, edo bestela Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erki-deari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan azaltzen diren edozein erregistro edo bulegotan.

2.–Bosgarren arauko frogatzeko moduen artean zein aukeratu den azaldu beharko da eskabidean. Horrekin batera, eskatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.
- Eskatzaileek jarduera egin zuten lekua zehaztu beharko dute, baita lan hori egindako datak edo aldiak ere.
- Lekuko frogak aukeratu ez bada, ondokoak: ziurtatu behar den irakaskuntza jarduera egin izana frogatzen duten agiriak, jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutakoak.

Bosgarrena.–Frogatzeko moduak.

1.–Zuzenbidean onartutako edozein froga moduren bidez egiaztatzen ahalko da euskara irakasten aritu izana, eta aski izanen da ondoko hauetako bat:

a) Bi lekukoren adierazpena, baldin eta ziurtatu beharreko eskoletan edo kurtsoetan ikasle izan baziren, edo horien guraso edo tutoreak.

b) Irakaskuntza eman zen lokalaren edo lekuaren jabearen adierazpena, edo irakaskuntza horren sustapen, antolakuntza edo kudeaketa bere gain zuenarena.

Lekuaren jabea Eliza Katolikoa edo bestelako pertsona juridikoa izanez gero, aski izanen da adierazpena egitea kurtso hartan arduraduna zenak, bai lokalaren edo lekuaren kudeaketarena bai irakaskuntza zaintzearena.

a) eta b) ataletan aipatzen den lekukoen froga Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusian egingen da (Santo Domingo, z.g., Iruña), Hezkuntza Departamentuko erregistroan eskabidea sartu eta hamabost eguneko epean. Horretarako hitzordua emanen zaie interesdunei, eta proposatutako lekukoek lagundurik joan beharko dute, denek ere Nortasun Agiri Nazionala aldean dutela.

c) Irakatsi izanaren ondorioz administrazio-zehapena ezarri izanaren, atxilotu izanaren edo polizien aurrean deklaratu behar izanaren egiaztatzea.

2.–Euskara irakatsi dela uste izanen da baldin eta foru agindu hau indarrean sartu aurretik argitara emandako edo erregistratutako zientzia edo kultur-ikerketetan hala jasotzen bada. Haietan jasota egon beharko dute irakaskuntza aldiaren datak, eta interesdunek behar bezala justifikatu beharko dute hori.

3.–Irakaskuntza aldia frogatzeko nahitaezkoa izanen da espedienteen agertzen diren data, aldi, leku eta bestelakoei buruzko datuek elkarrekin bat etortzea, baldin eta horiek ziurtatu behar badira.

2. Foru agindu hau igortzea Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Argibide eta Agiri Bulegora, behar diren ondorioak izan ditzan.

3. Foru agindu honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

4. Foru agindu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara ematea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an.–Hezkuntza kontseilaria, *Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea*.

F0717035